

“Danspirenaika” ekimena AIKO Taldearekin

nontzeberri.eus/danspirenaika-ekimena-aiko-taldearekin

May 19, 2022



Dantza eta mendia batuko ditu [AIKO Dantza Taldeak](#) *Danspirenaika* ekimenarekin, eta mendiko paisaietan dantza tradizionalaz gozatzeko gonbitea luzatuko du. Ekimena Pirinioetan egingo da, mendikate horren inguruan dauden kultur tradizioak *Danspirenaikaren* bidez elkartuz. Egitasmoaren hasiera maiatzaren 21ean eta 22an izango da Areatzan.

Danspirenaika 2022ko lehen etapa maiatzaren 21ean hasi, 16:30ean, eta igandean amaituko da, eta irakasle espezializatuak emango dituzten lau ikastaro bilduko ditu. “Lehenengoa Pilar Baca sevillarrak, dantza espainiarreko eta flamenkoko irakasleak, zuzenduko du, eta euskal jotaren eta buleriaren arteko loturez arituko da. Ondoren, Larritz Artetxe AIKO taldeko kideak *Jotarekin olgetan Arratian* izenburuko ikastaroa emango du. Zapatuari amaiera emateko Areatzako erromeria mugikorra abiatuko da Gudarien Plazatik. Domekan Claude Iruetagoiena lapurtarraren txanda izango da, euskal dantzaren ohiko jauziak irakatsiz. Eta Ines Uriarte ondarrutarrak emango dio amaiera egunari, bikotean gidatzearen oinarritzko kontzeptuei buruzko ikastaroarekin”.

Izena eman nahi baduzue: aiko@aikotaldea.eus helbidea duzue.

AIKO Taldeak bigarren topaketa bat ere antolatu du uztaileko azken asteburuan Jacan, eta han ikastaroak, tailerrak eta dantza herrikoiak eskainiko dira.